



Ajangizko Udala



AJANGIZKO UDALAK 2013KO URRIAREN 30EAN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Mikel Ander Zubizarreta Gonzalez-Rua jauna

Zinegotziak:

*Aiora Berrojalbiz Olaeta andrea
Beñat Madariaga Aurrekoetxea jauna
Jesus Mari Ajuria Odriozola jauna*

Bitarteko Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2013ko urriaren 30ean arratsaldeko 18:30etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

1.- AZKEN BILERETAKO AKTAK IRAKURRI ETA ONESTEA, BEHAR BADA.-

2013ko irailaren 26an izandako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztiek onartu dute.

2013ko urriaren 17an izandako ez ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztiek onartu dute.

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONESPENA, BEHAR BADA.-

- **Irailaren 20ko 2013/90 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kreditu transferentziarako zehaztapidetzari hasiera.
- **Irailaren 30eko 2013/91 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2013ko 3. hiruhilabeteko zabor bilketa zerbitzuaren tasen padroia onartzea
- **Urriaren 1eko 2013/92 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Sagartxola inguruan burutzen ari diren lanak berehala gelditu daitezzen agintzea.
- **Urriaren 1eko 2013/93 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxuko landaguneko P-2 (n-62) lurzatian bizitza bakarreko etxea eraikitzen hasteko baimena
- **Urriaren 2ko 2013/94 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu 65, Teilape etxeko terrazetako baldosa eta zeramikak kendu eta berriak jartzeko lanetarako baimena.
- **Urriaren 2ko 2013/95 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mendieta 67, 1. eskumako etxean bainugelako dutxako platera aldatzeko lanetarako baimena.



Ajangizko Udala



- **Urriaren 3ko 2013/96 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udalak 2010 urtetik jabari publiko hidraulikoa erabiltzeagatik dituen zorrak kitatzea.
- **Urriaren 4ko 2013/97 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Gizarte larrialdietako 1/2013 espedientearen bigarren ordainketa.
- **Urriaren 4ko 2013/98 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2013ko ohiko etxebizitzaren ondasun higiezinaren gaineko zergaren familia ugarientzako laguntza ematea.
- **Urriaren 4ko 2013/99 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu 84 etxe ondoan dagoen eraikinean egindako lanen legeztapena onartzea.
- **Urriaren 8ko 2013/100 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop.eko lur eremuan, produktuen behin behineko enbalaje biltegiaren instalazioak legezztatzea
- **Urriaren 10eko 2013/101 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Kultur Etxeko kultura zerbitzuen koordinazioaren esleipena.
- **Urriaren 16ko 2013/102 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop.eko lur eremuan, abuztuaren 29an izandako sutearen ondorioz egindako eraispen lanak legezztatzea.
- **Urriaren 17ko 2013/103 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxuko eskolan elikagaien eraldaketarako jarduerak burutzeko lokalak sortzeko aurreproiektuaren erredakzioaren esleipena.
- **Urriaren 18ko 2013/104 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Polikiroldegirako diru laguntzak.
- **Urriaren 18ko 2013/105 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Artxube Dantza Taldeak aurkeztutako justifikazio agirietan oinarrituta, 604,80 euroko diru-laguntza onartzea.
- **Urriaren 18ko 2013/106 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu 65, Teilape etxeko komuneko leihoak aldatzeko lanetarako baimena.
- **2013/107 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu 74 Okaragane Use etxeko erretila konpontzeko baimena.
-

3.- 2014 URTERAKO UDAL ORDENANTZA FISKALEN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkateak azaltzen du, 2014rako Udala Ordenantza Fiskalak onartu behar direla eta, gaur egun ekonomiak bizi duen egoera hartu dela kontutan. Hori jakinda, eta udaletik herritarrei ahalik eta zerbitzurik egokiena eskaini ahal izateko, zerga eta tasak egokitu dira.

Aurkeztutako proposamen hau joan zen urriaren 25ean udaletxean talde politiko biek egindako batzarrean adostutakoak direla azaltzen du alkateak. Aldaketaren helburua beti ere, ematen diren zerbitzuak eta hauek sortzen dituzten kostuen arteko diferentzia murriztea da, europatik datorren arautegia bete ahal izateko.

Proposamenak honako ordenantza hauek aldatzen ditu:

- Motodun ibilgailuen gaineko zerga

- Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasa eta prezio publikoen ordenantza arautzailea:

- 2. epigrafea: zabor bilketa eta ezabatze zerbitzuagatik tasa.

- 4. epigrafea: etxez etxeko laguntza zerbitzuagatik tasa



Ajangizko Udala



- 5. epigrafea: udal hilerri eta hileta Zerbitzuak
- 6. epigrafea: agiri administratiboak emateagatiko tasa
- 7. epigrafea: hirigintza baimenak tramitatzeagatiko tasa
- 8. epigrafea: udal pilotalekua erabiltzeagatiko tasa

Horrez gain, “Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailea”ri dagokionez, epigrafe bi gehitzea proposatzen da:

- 9. epigrafea: Udal material eta ekipamendua erabiltzeagatiko tasa.

Aulkiak, mahaiak... : 0,20 €/aulkiko
0,50 €/mahaiko

Materiala udaletxean eskatu beharko da idatziz eta jaso eta bueltatzeko, zein bere egoeraren berri emateko arduradun bat izendatu beharko da.

Tasaz gain interesdunek 30,00 euroko fiantza arkeztu beharko dute udaletxean, sortu daitezkeen kalteen berme modura.

- 10. epigrafea: Ikastaroak 2013-2014 ikasturteko prezio publikoa

Ingelesa

Egunak: astelehenak

Orduak: 17:30-18:30

18:30-19:30

Dantza Modernoa

Egunak: asteazkenak

Orduak: 18:15 – 19:15

Pilates

Egunak: astelehen eta asteazkenak

Ordua: 17:15 – 18:15

Yoga

Egunak: astearte eta osteguna

Orduak: 18:00 – 19:30

Pilaflex

Egunak: astearte eta ostegunak

Orduak: 20:15 – 21:15

Argazkilaritza

Egunak: astelehenak

Orduak: 19:00 – 20:00

Jostugintza

Egunak: asteazkenak

Orduak: 18:00 – 20:00

Kuotak:

- Erroldatuak:
 - Helduak: 20,00 €
 - Adin txikikoak:
 - 1 ikastaro 20,00 €
 - 2 ikastaro 35,00 €
 - 3 ikastaro 50,00 €
 - 4 ikastaro 65,00 €
- Erroldatuak ez direnak:
25 € pertsona 1



Ajangizko Udala



23 € pertsonako adin txikiko neba-arreba bi edo gehiago direnean.

Alkatetzak aurkeztutako proposamena botaziora aurkeztuta bertaratutako zinegotziek aho batez honakoa onartu dute:

Lehenengo.- Ondoko Ordenantzen onarpen edo aldaketaren behin behineko onarpena:

- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga araupetzen duen ual ordenantza fiskala
- Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailea.

Bigarren.- Behin behineko onarpena jendaurrera zabaltzea, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeita hamar eguneko epean interesdunek agiriak azter ditzaten eta izanez gero, dagozkion erreklamazio eta iradokizunak aurkez ditzaten, Toki Araudiaren Oinarriak arautzen dituen 7/1989 Legeak, bere 49. Artikuluan eta Toki Ogasunak arautzen dituen 5/1989 Foru Araudiak, 16. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarren.- Jendaurreko epean elegiterik aurkeztuko ez balitz, behin behineko akordioa behin betiko bilakatuko da.

4.- F.J.G. ETA A.B.G.-K EUSKADIKO AUZITEGI NAGUSIKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN SALAK EMANDAKO 180/2011 SENTENTZIA BETETZEARI BURUZ AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAREN AZTERKETA ETA UDALAREN POSTURA ONARTZEA, BEHAR BADA.-

Alkate jaunak, gai honi buruzko aurrerakinak azaltzen ditu. Bizkailur bitartez eraikitako etxebizitzaren adjudikazio prozeduran, F.J.G. eta A.B.k zerrendatik kanpo utzi zituen udalak diru-sarrerara kopurua jarritako kopurua baino altuagoa zutelako.

Epaitegietan lehenengo instantzian udalari eman zioten arrazoia, baina bigarreanean beraiei.

Hori horrela, Euskadiko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 180/2011 sententzia eman zuen, udalak hartutako erabakia zuzena ez zela azalduz. Ordurako prozedura bukatua zegoen eta etxebizitza guztiak salduta.

Epaia bete asmoz, Ajangizko udalak lehenengo hartutako erabakia itxaron zerrendan Gamboa-Bengoechea jaun-andreak lehenengo postuan jartzea izan zen. Horrez gain, inguruko herriekin kontaktuan jarri eta antzeko baldintzak zituzten etxebizitzak eskaintzeko aukerak aztertu ziren. Gernika-Lumoko udalarekin kontaktuan jarrita, honek babespeko etxebizitzak bazituela azaldu zuen, baina 5 etxebizitzetarako 437 pertsonako itxaron zerrenda zutela.

Bizkailurrekin kontaktuan, Nabarnizko udalak egindako etxebizitzak lortzeko aukera sortu zen. Ajangizko Udala Nabarnizkoarekin kontaktatuta, prozedura osoa burutu eta Nabarnizko udalak etxebizitza bat (eurek aukeratzeko) zuzenean Gamboa-Bengoechea jaun-andreei eskaini zien.

Etxebizitza honi uko egin zioten Ajangizko udalean aurkeztutako idatzi baten bidez.



Ajangizko Udala



Orain, abokatuen arteko elkarrizketa bitartez, proposamen bat egin dute: perito batek balorazio bat egin dezala eskatzea, etxebizitza libre eta tasatuaren arteko kostuaren diferentzia zehazteko, eta beraiei kopuru hori ordaintzea.

Gure abokatuak esandakoaren arabera, kopuru nabarmena izan daiteke, izan ere Ajangizen ez bait dago ez etxebizitza libre ezta tasaturik ere eskuragarri.

Egoera honetan, aukera bi aurkezten dira:

- 1) Gamboa-Bengoechea jaun-andreen abokatuak egindako proposamena onartzea
- 2) Orain arte egindako ekintzekin udalak bere betebeharra bete duela onartzea, eta beraien errenuntziarekin sententzia bete dagoela ulertzea.

Gaia botaziora aurkeztuta, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute Ajangizko Udalak orain arte burututako ekintzekin, (zerrendatan lehenengo erreserba modura jartzea eta baldintza berdineko etxebizitza aukera Nabarnizen) Euskadiko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako 180/2011 sententziak eskatutakoa bete duela, eta ondorioz sententzia exekututuz eman daitekeela beraien errenuntziarekin.

5.- ESTATUKO ABOKATUAK “EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA” KARTELA DELA ETA BILBOKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 4. ZENBAKIDUN EPAITEGIAN JARRITAKO DEMANDARI BURUZKO UDALAREN POSTURA ONARTZEA, BEHAR BADA.-

Alkate udalburuak, Bilboko Administrazioarekiko auzien 4. Epaitegian estatuko abokatuak aurkeztutako salaketaren berri ematen du. Salaketak, udaletxeko balkoian kokatuta dagoen “Euskal Presoak Euskal Herrira” kartelagatik aurkeztu da. Salaketa erantzuteko 20 eguneko epea dago.

Alkateak azaltzen duenaren arabera, gaur eguneko egoeran, behin betiko tregua egoeran, Estrasburgoko epaia eta gero, era honetako salaketek ez daukate zentzurik, kartel horrek aldarrikatzen duena preso orok duen eskubidea baino ez bait da, hau da, presoak jasotako zigorra etxetik hurbil betetzea, horrek familia, lagun eta ingurukoekiko dituen ondorioekin.

Adierazitakoa kontutan hartuta, alkatetzak prozedurarekin aurrera egiteko proposamena luzatzen dio osoko bilkurari, salaketaren bidezko erantzuna aurkeztuz.

Proposamena botaziora eramanda, honako emaitza jaso du:

- Aldeko botuak, hiru (3) bertaratutako BILDU taldeko zinegotzienak
- Kontrakoak: ez daude
- Abstentzioak: bat (1) bertaratutako EAJ-PNV taldeko zinegotziarena

Jasotako emaitza ikusita, alkatetzat onartutuz aldarrikatzen du proposamena.

6.- ERREGU ETA GALDERAK.-

6.- RUEGOS Y PREGUNTAS.-

- Jesus Mari Ajuria zinegotzi jaunak, Kanpantxuko eskolari buruz aipatutako dekretua zer den galdetzen du.

Alkateak, Kanpantxuko eraikuntzaren egoera jakin gurean dabilea Udala azaltzen du. Jabetza udalarena ez dela jakinda ere, zein egoeratan dagoen aztertu eta udalak bertan zerbait egiteko aukerak aztertzea dela asmoa. Horretarako lehenengo ideia modura, nekazaritzat produktuen



Ajangizko Udala



elaboraziorako gune bat jartzea proposatu da, eta dekretu bidez ideia hori lantzeko agindua egin zaio ingeneri agrónomo bati. Hala ere, lehenengo jabeak nortzuk diren ikusi beharko da, eta udalaren asmoa beraiekin batzar bat egin eta eraikuntzari eman diezaiokegun erabilera aztertzea da, besteak beste nekazal produktuen elaboraziorako gunea. Hala ere Udala izan daitezkeen ideien zain dago, eraikuntzaren zeszioaren truke herriari zerbait eskaintzeko.

Jesus Mari Ajuria jaunak, eskolako jabeekin egindako azken batzarra berak antolatu zuela azaltzen du, eta badaukala orduan egindako zerrenda bat. Zerrenda hori udaletxera ekarriko omen du, eskolan parte hartu zutenak ez bait dira kasu guztietan baserrietako jabeak errentadoreak baizik, gero trukeak ere egon omen ziren... Egindako batzar haren helburua ere zeszioa udalari ematea izan zen baina azkenean dena bertan behera geratu zen.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da arratsaldeko zazpiak eta bost minututan, eta horren sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen honek, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

Mikel Ander Zubizarreta Gonzalez-Rua

BITARTEKO IDAZKARIA

Saioa Pineda Aranburu